



## Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




<b>abagune</b> aukera, egokiera	Nire hitzek ez zuten duda-mudarako <b>abagunerik</b> uzten eta bibotedunak amore eman behar izan zuen.	168
<b>abegikor</b> errespetuzkoa, atsegina	Eta jarrera oso <b>abegikorrari</b> eusten zion bezeroaren zalantzak argitzerakoan.	137
<b>adats</b> ile luzea, multzoa	Musu gorrixka hura, ezpain mamitsu haiek, <b>adats</b> gorri eta kizkur hura.	230
<b>adieragabe</b> espresio gabea	Berak, ostera, tutik esan barik, aurpegi <b>adieragabea</b> batere aldatzeke, eskailleratan gora jarraitu zuen...	27
<b>agiraka</b> errieta, suminduta, bronka	Gorde hori –bota zidan, <b>agiraka</b> tonuan–.	129
<b>ahalik eta -en</b> albait -en	...ozenegi ez abesteko tentuz eta ahoskera <b>ahalik eta</b> ondoen zainduz.	180
<b>ahapeka</b> marmarka, isilean	...irribarrez sumatu bainuen, <b>ahapekako</b> berba jario bitxi bat botatzen zuela. <i>Vecchio txotxolo!</i> baino ez nion ulertu...	181
<b>ailegabide</b> iristeko aukera ezberdinak	...eta bazitekeela taxiz-edo pasatu izana nire muturren aurretik nahiz beste <b>ailegabideren</b> batetik, ni enteratu gabe.	101
<b>aje</b> mozkorraldi ondokoa, ostea	Gainera, itsasoko ura primerakoa da horrelako <b>ajeak</b> kentzeko.	156
<b>aldaka</b> mehaka, gerri aldea	Ez nuen haren abisurik entzun eta kolpe gogorra hartu nuen <b>aldakan</b> behegainaren kontra jotzean.	166
<b>aldamenean</b> alboan	Hormaren erdian eta txirrin baten <b>aldamenean</b> , leihoxka bat zegoen, ziurrenik.	22
<b>aldarte</b> umorea	Ez zitzaidan beste ezer bururatu Adari kemena emateko, eta nire <b>aldarte</b> a ere ez zegoen egoerarik onenean.	220
<b>aldendu</b> urrundu	Gero nigandik apur bat <b>aldendu</b> eta irratiz eman zion...	199
<b>aldikada</b> denboraldia	<b>Aldikada</b> batez era hartara jabetu ziren kaleaz...	115
<b>algara</b> barre-hots ozena	...barre <b>algarez</b> tartekatua...	185
<b>amarru</b> trukua, trikimailua	<b>Amarru</b> zaharra da hori –eten zigun andrazko batek...	223
<b>antijodun</b> betaurrekoduna	Despistatu itxurako gizon burusoil txiki eta <b>antijodun</b> bat...	124
<b>arakatu</b> ikertu, miatu	...gauzak <b>arakatzen</b> eta galderak egiten ari zitzaizkien...	198
<b>arbuiatu</b> gaitzetsi, txartzat hartu	Bileraren erdi aldera Idirrek garraztasunez <b>arbuiatu</b> zuen hainbat gazte magrebtarren jokabidea...	111
<b>arestian</b> duela gutxi	Horrek <b>arestian</b> utzitako gaira itzultzeko gogoia eman zidan.	91
<b>argitze aldera</b> argitzearren	...bazitekeen zerbait egitea hilketa hura <b>argitze aldera</b> ...	227
<b>arindura</b> lasaitasuna	<b>Arindura</b> txiki bat sentitu nuen zoritzarreko albistea nire ahotik ez jakiteagatik, behintzat.	162
<b>arlote</b> zarpaila	Hortik segundo gutxira <b>arlote</b> itxurako gizon magrebtar bat joan da horraino...	171
<b>arrastaka</b> herrestan, tatarrez, narras	...gizon nagusiak apur bat urrundu zuen <b>arrastaka</b> bere aulkia nigandik, eta azal-zurbilak konplizitatezkoa bide zen ukondoka txiki bat eman zidan...	122
<b>arroila</b> ur-jasek eratutako ubidea	Tren bat igaro zen <b>arroilapeko</b> burdinbidetik.	152




<b>artaburu</b> ergela, kaikua, tentela	Beti trajez eta zeta gorbataz jantzita joaten da, nahiz eta jatorriz baserritar <b>artaburu</b> hutsa izan.	44
<b>atalaia</b> begiralekua, toki altua	Ibai bazterraren gainean dagoen <b>atalaia</b> antzeko baten daude bildurik, burdinazko barandaren alboan.	30
<b>atalase</b> ate baten behelaldeko atala	...bulego baten aurrera iritsita, atea ireki eta han sartzeko agindua egin zidan. <b>Atalasea</b> zeharkatu, nor topatuko eta Kristina ikusi zuten nire begi txundituek.	222
<b>atari</b> portala, atalasea	... <b>ataritik</b> kanpora ateratzean...	189
<b>atoan</b> berehalaxe, segituan	Senak aginduta, erlojuari begiratua egin nion eta orduan nire jarrera <b>atoan</b> aldatu behar nuela jabetu nintzen.	164
<b>atoi</b> erremolkea	...beso mekanikoez altxatu egin dute ontzia eta honen edukia <b>atoiko</b> mekanismo zanpatzailearen barruan hustu da.	106
<b>atril</b> kanten letrak kokatzeko gailua	...estropezu egiten zuela <b>atril</b> eta aulkiekin...	125
<b>azal zurbil</b> azal xuriko pertsona	...gizon nagusiak apur bat urrundu zuen arrastaka bere aulkia nigandik, eta <b>azal-zurbilak</b> konplizitatezkoa bide zen ukondoko txiki bat eman zidan...	122
<b>balantzaka</b> alderoka, zabuka, alderik aldera	...taberna baten aurrean <b>balantzaka</b> eta zentzugabekeriak esaten...	73
<b>baranda</b> eskudela	Ibai bazterraren gainean dagoen atalaia antzeko baten daude bildurik, burdinazko <b>barandaren</b> alboan.	30
<b>baretu</b> lasaitu, trankildu	...ahoskera <b>baretzeko</b> ahaleginez...	194
<b>begitandu</b> iruditu	...barruko gizonak jaten eta edaten bapo ipintzen ziren bitartean, denbora galtze hutsa izango zela <b>begitandu</b> zitzaidan.	87
<b>begitazio</b> irudipena	...eta zera pentsatu nuen, marihuanaren ondorioa izan behar zuela <b>begitazio</b> hark.	9
<b>bekoki</b> kopeta	<b>Bekokira</b> eraman nituen eskuak...	188
<b>berau</b> hauxe	<b>Berau</b> zen, hain zuzen, ganbak abiadura handienaz irensten zituena...	78
<b>berbaldi</b> elkarrizketa	...eten egin zuen <b>berbaldia</b> Lolesek, eta neure buruari galdetu nion...	65
<b>berretsi</b> aurrekoa baieztatu	—Toure — <b>berretsi</b> zuen Txemak, nire hausnarketa etenaz—, lagunduko didazu, ezta?	205
<b>berriketari eman</b> hizketan hasi, solasteari ekin	...korukide gehienak zutitu, nagiak atera eta <b>berriketari eman</b> zioten.	125
<b>betazpidun</b> begizuloa, begi azpi belztua	... <b>betazpidun</b> mehe eta buruhandi bat, arlote mailako arropaz jantzia...	78
<b>birao</b> maldizinoa, araoa	...lurrera bota zituzten <b>birao</b> batez, baten batek gorde egin zuen...	27
<b>bizkarzain</b> norbaiten babesle fisikoa	Bera ia seguru dago morroi hori <b>bizkairzain</b> aritzen dela orain.	159
<b>bolada</b> denboraldia	...baina azken hilabeteetako <b>bolada</b> txarraren ondorioz kale gorrian suertatu ginen.	36
<b>bulkada</b> bultzada	Atezainarena egiten duen gizonak, oster, bai izan duela ihes egiteko <b>bulkada</b> ...	108
<b>burutazio</b> ateraldia, ideia bitxia	Halako <b>burutazioen</b> erasoepen nengoela ailegatu ginen Afrika txikiaren sarreraraino...	207
<b>damutu</b> dolu izan, garbaitu (arrepentitu)	<b>Damutu</b> egin nintzen esan behar nuenaz, bat-bateko lotsak jota, eta isildu egin nintzen.	160




<b>deiadar</b> garrasia, heiagora, txilioa	...hala imitatu nuen doinu hura eta nire <b>deiadarren</b> eragina nabarmena izan zen...	119
<b>deigarri</b> arreta erakartzen duena	Guztira lar <b>deigarria</b> nintzela jabetu nintzen...	78
<b>desenkusatu</b> zuritu, ezina adierazi	Ez da beharrezkoa <b>desenkusatu</b> nintzen-, gaur nekatuta nago.	141
<b>deus</b> ezer ez	...hobe duzu nitaz <b>deus</b> ez esatea inori...	189
<b>deuseztu</b> baliogabetu, ezereztu	...keinu irangakorra berehala <b>deuseztu</b> zen eta berriz eman zion burla tonua bere ahoskerari.	14
<b>dirdirkari</b> distiratsua, dirdaitsua	...gorri biziko kiribil <b>dirdirkari</b> haiekin.	71
<b>ei</b> bide, antza	Autoa handia <b>ei</b> zen, eta iluna, urdin iluna uste dut...	85
<b>ekimen</b> lanerako ahalmena, inizatiba	...eta bestelako gaiei buruz mintzatu ginen, beti ere beraren <b>ekimena</b> eta gidaritza onartuz.	46
<b>erabakitsu</b> ziurra, konfiantzaz betea	Aurrez aurre ikusi nuenean harritu egin nintzen, haren ahots <b>erabakitsua</b> entzunda eta besoa zelako indarraz okertu zidan sentituta...	179
<b>erantsi</b> gehitu, gaineratu	...badakizu zein den Ledesma kalea, ezta? <b>erantsi</b> zuen andreak.	45
<b>errekasto</b> xirripa, erreka txikia	...txanpon <b>errekasto</b> luzea ateratzen ari zitzaion une horretan...	14
<b>eskupeko</b> ppropina, ezkutuko dirutxo	...“aparteko <b>eskupeko</b> bat” ere agindu zidan mesede haren truke.	53
<b>eskutur</b> eskumuturra	Gorputza jirarazi, goitik behera miatu eta burdinak ipini zizkidaten <b>eskuturretan</b> .	209
<b>estimu</b> aprezioa, balioespena	<b>Estimu</b> berezia sentitzen hasi nintzen berarekiko.	171
<b>etsipen</b> dezepzioa	Hala ere, horien inguruan kokatzen dira, ezin jakin <b>etsipenez</b> , arduragabekeriak ala gorrotoz.	30
<b>etxebako</b> etxegabea	Izen bereko kalearen eta Maiatzak 2ren arteko bidegurutzean pilatu ohi dira azken gautxori nahiz <b>etxebakoak</b> .	129
<b>ezkor</b> negatiboa, gogo gabea	Ostera ere burutazio <b>ezkorren</b> putzuan jaustea saihestearren neure burua jarlekutik zutitzen behartu nuen eta oinez abiatu...	197
<b>ezpainzapi</b> paper zapitxo	Isilik itxaron nuen ogia zatitu eta <b>ezpainzapiak</b> mahairatzen zituen bitartean, eta botila bat ardo irekitakoan, berriz mintzatu zitzaidan.	170
<b>garrastu</b> mikastu, ozpindu	Adaren musuko keinua <b>garrastu</b> eta une batez isildu egin zen.	218
<b>gautxori</b> parrandazalea, festazalea	Izen bereko kalearen eta Maiatzak 2ren arteko bidegurutzean pilatu ohi dira azken <b>gautxori</b> nahiz etxebakoa...	129
<b>gazi-go</b> onak eta txarra	Sentiera <b>gazi-go</b> artean zeharkatu nuen arroila gaineko zubia...	197
<b>gibelandi</b> alferdoa, potrohandia	...Manu ere guru Martxelen antzeko <b>gibelandia</b> da.	90
<b>gidaritza</b> aitzindaritza, zuzendaritza	...eta bestelako gaiei buruz mintzatu ginen, beti ere beraren ekimena eta <b>gidaritza</b> onartuz.	46
<b>goitiar</b> gorena, harro antzekoa	—Pentsatuko dutu —esan zidan, nirekin ohikoa zuen <b>goitiar</b> kutsuko begirada jaso harekin— zelan ordaintzen didazun mesedea.	128
<b>gomuta</b> oroipena	...batetik familiaren <b>gomutak</b> eragin zidan sentiera gazia sumatzen nuen...	73




<b>gordin</b> erreala, benetakoa	Errealitate <b>gordina</b> zen toki bi haiek...	214
<b>gosekil</b> goseak hila, txiroa	...arrote mailako arropaz jantzia eta <b>gosekil</b> itxurakoa.	78
<b>gupida</b> errukia	<b>Gupidarik</b> gabe egin diote eraso...	238
<b>halandaze</b> beraz, horrela ba	... <b>halandaze</b> adostasuna adierazi nion behin eta berriz...	94
<b>hausnarraldi</b> gogoeta, analisisa	Toure –une bateko <b>hausnarraldia</b> egin zuen–. Gustazen zait.	26
<b>hausnarrean</b> gogoetatzen	<b>Hausnarrean</b> ari nintzela, nire sakelakoak jo zuen.	156
<b>helduleku</b> euskarria	...demonio baten irudiko <b>heldulekua</b> zeukana...	185
<b>herrimin</b> nostalgia	... <b>herrimin</b> pixka bat somatu nuen tramitazioa egin bitartean.	59
<b>hitz-andana</b> hitz-multzoa	...ukonkada txiki bat eman zidan, <b>hitz-andana</b> ulergaitz bat botatzen zidan bitartean.	122
<b>hornitu</b> jantzi, ekipatu	...futbol talde gogokoenen bufandez <b>hornituta</b> daude eta bertan...	54
<b>hotzikara</b> dardara, asaldura	Izen hori aipatze hutsak <b>hotzikara</b> bat eragin zidan...	187
<b>hurreratu</b> hurbildu	...opera-saioan <b>hurreratu</b> ahala entseguak ugaritu egiten dira.	52
<b>huskeria</b> garrantzi gabea, txikikeria	Egia esan, momento hura ez zen niretzat egokiena futbola bezalako <b>huskerietan</b> pentsatzeko.	204
<b>igarle</b> profeta	...are gutxiago <b>igarle</b> serio eta errespetagarria eman nahi banuen.	28
<b>igurtzi</b> marruskatu	Begiak <b>igurtzi</b> nituen, ireki, itxi, betazalak gogor estutu eta berriro ireki nituen.	9
<b>ile-adats</b> ilajea, melena	Liburu banatzaileak guztiz berreskuratu zuen umore ona eta <b>ile-adats</b> beltz eta kizkurtuko tabernariari...	99
<b>iltzatu</b> finkatu, irmo kokatu	Bere begiak nireetan <b>iltzatu</b> zituen segundo batez.	136
<b>imintzio</b> keinua, aierua	...eta beste hainbat aldiz errepikatu behar izan nien antzeko <b>imintzioa</b> nahasturik begiratzen zidaten bezeroei.	69
<b>iradokizun</b> sugerentzia, gomendio gisakoa	...berarekin dutxatzeko <b>iradokizunik</b> ez jasotzea desiratu nuen...	53
<b>iratzarri</b> esnatu, izartu	Nire telefonoko musikak <b>iratzarri</b> ninduenean ez neukan guztiz argi non nengoen...	33
<b>irmotasun</b> ziur eta tinko	Aulkia nigana pixkatxo bat hurbildu eta bostekoa luzatu zidan <b>irmotasun</b> handiz...	181
<b>itaundu</b> galdetu	...nirekin bezain amultsu jokatzeko <b>itaundu</b> nion neure buruari	74
<b>itsumustuka</b> itsu-itsuan, haztamuka	...ia <b>itsumustuka</b> eta belarrietan txistu makal baina etengabe bat aditzen nuela...	18
<b>itzaltsu</b> iluna, ospela	Mozoilo Baltza tabernaren barrualdea <b>itzaltsu</b> zamarra zela, argitasun bakarra sabai baxuko lanpara gorri makalena zela.	9
<b>itzarri</b> esnatu	...bat-batean <b>itzarrita</b> legez...	



<b>izara</b> maindirea	...haien moduko <b>izara</b> garbien laztana inoiz probatu gabea nintzen.	48
<b>izualdi</b> larrialdi handia	Gorputza minduta ailegatu nintzenean, beste <b>izualdi</b> bat hartu nuen.	151
<b>jardun</b> aritu	...neska talde baten barruan kaleko lanean <b>jardutea</b> ...	192
<b>jendilaje</b> jendaila, jende txarra	Ia konbentzitu ninduten (...) auzo hura ia paradisia izan zela afrikarrok eta beste <b>jendilaje</b> batzuk ailegatu aurretik, haiek gazteak ziren sasoian.	145
<b>jomuga</b> itua	...orain nengoen ustezko paradisia <b>jomuga</b> .	79
<b>kai</b> dikea	Jarraitzaileetako batek <b>kaiko</b> eskaileratik ur-ertzerara jaistekoa egin du, baina bere kideak gogor oratu dio besotik.	32
<b>kankailu</b> handikotea, handi-baldarra	Palankara joaten da badakizue zertara, sarritan lagun <b>kankailuarekin</b> .	45
<b>karel</b> itsasontzien goiko ertza	Ez zen lehenengo aldia botaka egin nuena (...) baina orduko hartan burua <b>kareletik</b> kanpora ateratzeko astirik izan banuen, bigarren honetan ez...	169
<b>karraju</b> pasilloa, korridorea	... <b>karrajutik</b> ateratzen jarraitu genuen...	26
<b>*kaukari</b>	Ez zen bakarrik gaueko hamarretan, kalean bat-batean harrapatuta, kaukariak botatzeko egin zidan eskaria...	185
<b>kauri</b> zuhaitz mota, koniferoa	Larru beltzez eginda zegoen eta urdin argiz margotutako <b>kauri</b> batzuk zeuzkan josita.	149
<b>kemen</b> adorea, ausardia	Ez zitzaidan beste ezer bururatu Adari <b>kemena</b> emateko...	220
<b>kikildu</b> koldartu, mekotu	...gazte bizarduna ez da batere <b>kikildu</b> , sutsu dihardu eztabaidan eta badirudi...	56
<b>kilikadura</b> zirrara, kitzikapena	...ederto-esan nion, <b>kilikadura</b> disimulatu nahian.	34
<b>kitatu</b> kendu	Biok berriz Afrikatik Europara pasatzea lortzen dugunean zorra <b>kitatu</b> beharko duzu, pentsatuko dugu zelan.	220
<b>kraskatu</b> urratua, lakartua, latza	—Zer moduz, andereño? —erantzun nion ahots <b>kraskatuko</b> atsoari.	103
<b>kutsuko</b> itxurakoa	...desafio <b>kutsuko</b> keinuari eutsiz	224
<b>lanpernatan</b> lanpernak harrapatzera (percebe)	Proposatzen dizudana, zera da, elkarrekin joatea <b>lanpernatan</b> Izarora.	155
<b>lar</b> oso, gehiegi	...Bilbo ez dut <b>lar</b> ondo ezagutzen, San Frantziskotik aparte.	90
<b>larrugorri</b> biluztu, arropa erantzi	...komunean sartu, gerritik behera <b>larrugorritu</b> eta, duxako ura apur bat epeldutakoan...	20
<b>larrutan egin</b> amodioa egin, txortan	...bere emaztearekin <b>larrutan egitea</b> , sasidetektibearena eginez bere atzetik argazki konprometituak egiten ibiltzea...	152
<b>laudorio</b> gorespina, alabantza	...edonola, haien <b>laudorioei</b> muzin egiteko arrazoi nagusia ez zen euren itxuraren txukuntasuna izan...	12
<b>lirdingatsu</b> likatsua, biguna eta itsaskorra	...alga txiki eta <b>lirdingatsu</b> batzuk musukatuz...	166
<b>lo-kuluxka</b> siesta	Toure, aukeratu: edo billete hori jaso eta, horren nekatuta edo presatuta bazaude, lasai joan <b>lo-kuluxka</b> bat nahiz dena delako egitera...	141
<b>losintxatan</b> lausenguka, koipea ematen	...eta zuk jaramonik ere ez diezu egin <b>losintxatan</b> hasi zaizkizuenei.	12




<b>magrebtar</b> Afrika iparraldekoa	Maiatzak 2ren arteko bidegurutzean pilatu ohi dira azken gautxori nahiz etxebakoak, <b>magrebtar</b> gazteak gehienbat.	129
<b>mairu</b> arabiarra, musulmana (despekt.)	Monitorekoa ere, haiek bezala, konbentziturik dago gezurretan ari dela <b>mairu</b> madarikatu hori.	130
<b>malenkoniatsu</b> melankolikoa, tristurazkoa	...so egiten zidan pianoaren beste ertzetik bere begi grisaxka eta <b>malenkoniatsuekin</b> .	118
<b>mamarru</b> mamorroa, mamua, bitxoa	...oso deseroso sentitu nintzen, <b>mamarru</b> arraro bat banintz bezala, begiluze haien guztien aurretik igarotzean.	121
<b>mamurtu</b> hausnartu (mastikatu)	Nigeriarrari aditu bitartean berarentzat zer irtenbide egon zitekeen <b>mamurtzen</b> ari nintzen.	164
<b>maratila</b> kisketa	Ateko <b>maratilari</b> eragitean jiratu egin nintzen.	26
<b>mardul</b> gizena, potoloa	Berak presumitzen du gazte <b>mardul</b> batez lagunduta joateaz.	153
<b>marmar</b> zurrumurrua, xuxurla	...ordu erdi berandu sartu zen aretoan eta korukideek txantxetako <b>mamar</b> etengabe batez lagundu zioten bere aulkirako ibilbide beldarrean...	125
<b>marmarti</b> maiseatzailea, gaizki esaka	Atsoak hausnar <b>marmartian</b> eman zituen segundo batzuk, berriz ekin aurretik.	103
<b>mehar</b> argala	Luze barik sartu zen aretoan zuzendari <b>meharra</b> , haren atzetik txankleta eta bermudadun pianojole mulatoa...	180
<b>mehatxu egin</b> zemaitu	...erasotzaile bati arma kentzea lortu du eta horrekin <b>mehatxu</b> eginez, neska atzean daukala, apur bat aldendu eta irekita dagoen atari bat aurkitu du.	150
<b>memelo</b> ergela, leloa, kokoloa	— Argiago esatea nahi duzu, <b>memelo</b> ?	177
<b>mesfidantza</b> errezeloz, fidatu gabe	...itaun batez erantzun nion, <b>mesfidantza</b> ezkutatu ezinik...	183
<b>morroi</b> morroskoa, tipoa	...aipatzea ahaztu zitzaidan beste <b>morroi</b> bat ere badago...	236
<b>muzin egin</b> baztertu, mespretxatu, arbuiatu	Berdin zion hauek <b>muzin egiten</b> zioten, ez ikusiarena egiten zuten, pikutara bidaltzen zuten...	38
<b>nagiak atera</b> logura kendu, alferkeria uxatu	... <b>nagiak atera</b> , solaskideari agur esan eta presa barik urrundu zen.	38
<b>nor topatuko eta</b> (harriduraz) hara nor zegoen!	...atea ireki eta han sartzeko agindua egin zidan. Atalasea zeharkatu, <b>nor topatuko eta</b> Kristina ikusi zuten nire begi txundituek.	222
<b>ñaño</b> ipotxa, ñimiñoa	Beste barik, sudaka <b>nanoa</b> Kristinarenean sartutakoan...	74
<b>ñimiño</b> txiki-txikia	Jarraian bota zidan begirada, irribarre <b>ñimiño</b> batez lagundua.	135
<b>oihartzun</b> dirundia	...lurreko parket irregularrak nire baitako kexuen <b>oihartzuna</b> eragiten zuela.	26
<b>oinaze</b> sufrimendua, pairamena	Eta <b>oinaze</b> anitza apur bat baretu zidan dutxa epelaren ondoren, sukaldera itzuli nintzenean.	169
<b>onespen</b> onarpena, baiezkoa	<b>Onespen</b> keinua egin nion buruaz, eta, komuneko atea erdi irekita utzirik dutxan sartu zenean...	53
<b>oratu</b> etsi, heldu, agarratu	Jarraitzaileetako batek kaiko eskaileratik ur-ertzerara jaistekoa egin du, baina bere kideak gogor <b>oratu</b> dio besotik.	32
<b>ordainbide</b> ordaintzeko modua	Jarraian bota zidan begirada, irribarre ñimiño batez lagundua, nahikoa izan zen mesede haren truke zelako <b>ordainbidea</b> espero zuen ulertarazteko.	135
<b>ospa egin</b> alde egin	...eta aldi berean hemendik <b>ospa egin</b> zuten ahal izan zuten bertoko guztiek.	67



<b>ostera</b> ibilaldia, paseoa, buelta	...patioan <b>osteraka</b> ibili nintzen...	220
<b>ozen</b> altuagoa bihurtu, zoliagoa	Pixka bat <b>ozendu</b> zen neskaren berbaera.	163
<b>ozta-ozta</b> nekez, justu-justu	...eta <b>ozta-ozta</b> zuritu ondoren aurrera jarraitu nuen...	27
<b>papogorri</b> musu-gorria, umetxoa	Erakusleihotik kanpora so egin nuen, atsedenaldea emanaz neskarekiko begirada-lehiari, eta potolo <b>papogorri</b> zoriotsu itxurako bat ikusi nuen...	81
<b>patrika</b> poltsikoa, sakela	<b>Patrikan</b> neukan papera luzatu nion eta bere poltsan gorde zuen ezer erantsi gabe.	128
<b>patxada</b> lasaitasuna	<b>Patxada</b> berreskuratzen saiatu nintzen eta ahoa nahikoa eta sobera ireki nuela esan nion neure buruari.	201
<b>pisukide</b> pisulaguna	...orduko hartara afrikar beltzei ahotsa ematen zien Osman <b>pisukideak</b> gonbidatuta nengoen.	109
<b>pulpitu</b> elizako tribuna goratua	...Teo piano aurrean eta Viktor bere <b>pulpituan</b> kokatu zirenean, entseguaren bigarren zatiari ekin genion.	185
<b>sa kene</b> potxola	Nire <b>sa kene</b> preziatuaren eragin xarmantagarria sentitzen ari nintzen osterera ere.	230
<b>sakelako</b> mugikorra, mobila	Hausnarrean ari nintzela, nire <b>sakelakoak</b> jo zuen.	156
<b>salmahai</b> mostradorea	Berriro so egin nion <b>salmahaiaren</b> osteko neskari...	81
<b>samin</b> mingarria	...gauzak hala, burutazio <b>saminak</b> uxatu eta orainaldian zentratzea erabaki nuen.	60
<b>sarekada</b> poliziaren ekintza	...putakume batzuk kenduta, branteak besterik ez ginen, <b>sarekadetan</b> edo banaka metroan, bus geltokietan edo kalean bertan harrapatutako gizagaixoak.	213
<b>sasiamorante</b> ez benetako maitalea	Bazirudien ez zeukala egun lar ona nire <b>sasiamoranteak</b> .	175
<b>sastada</b> labainkada	...baina zauritua gizon indartsua da eta, sastada <b>mingarria</b> gorabehera, makilaz jabetu eta...	57
<b>sikera</b> behintzat, bederen	...hango ikuspegia berdintsua zen, baina, <b>sikera</b> , hankak pixka bat luzatzeko abagunea genuen.	216
<b>sinesgogor</b> eszeptiko, sinesgaitz	—Presa zuk? —bota zidan, <b>sinesgogor</b> —.	141
<b>so</b> begira, adi	Ni haiei <b>so</b> geratu nintzen apur batean...	186
<b>so egin</b> begiratu	Gero mahai gaineko billeteari <b>so egin</b> zion, eta jarraian niri.	141
<b>solaskide</b> elkarrizketa laguna	Alfredo apaizak eguerdian emana zidan eskuturrekoa atera nuen poltsikotik eta <b>solaskideari</b> erakutsi nion.	149
<b>sumindu itxura</b> haserre jarrera	Juan Martin berriro jesarri zen bere lekuan eta <b>sumindu itxurari</b> utsiz, partitura hartu zuen eskuetan.	124
<b>sutsu</b> haserrekor, amorratuta	... <b>sutsu</b> dihardu eztabaidan eta badirudi edozein momentutan elkar joka hasiko direla.	56
<b>tentuz</b> zuhurtasunez	...ozenegi ez abesteko <b>tentuz</b> eta ahoskera ahalik eta ondoen zainduz.	180
<b>tirabiraz</b> tentsioa	Ez da horrelakorik gertatu; <b>tirabiraz</b> betetako minutu batzuen ondoren, haiek mespretxuzko keinu batez agurtu ditu ijitoak...	56
<b>tiraderatik</b> kaxoia	...harik eta <b>tiraderatik</b> paper batzuk atera...	224





<b>tupust egin</b> behaztopatu	...ia <b>tupust egin</b> nuen atarira iristean kontrako bidean zetorren gizon isilarekin.	27
<b>tutik</b> ezertxo ere	Berak, ostera, <b>tutik</b> esan barik, aurpegi adieragabea batere aldatzeke, eskaileteran gora jarraitu zuen...	27
<b>tximaluze</b> ileluzea	Zoriontsu itxurako mutil mulato <b>tximaluze</b> bat piano txiki baten aurrean jesarrita zegoen...	118
<b>txizerreka</b> txizaldia	<b>Txizerreka</b> luzea botatzeko beharra neukan eta, hormako txizontzia ziprizontzen hastearekin batera.	182
<b>txortan egin</b> larrutan egin, amodioa egin	Badakit nire emaztearekin <b>txortan egiten</b> duzula, baina ez dit ardura.	152
<b>txunditu</b> harritia, sinetsi ezinik	...atea ireki eta han sartzeko agindua egin zidan. Atalasea zeharkatu, nor topatuko eta Kristina ikusi zuten nire begi <b>txundituek</b> .	222
<b>ugertu</b> herdoildu	...zakarrontzi horietako bat ireki eta burdina <b>ugertu</b> batzuk bota ditu barrura.	171
<b>urdanga</b> emagaldua, txerritona	Baina zer arraio, azken baten zer axola zidan <b>urdanga</b> hark zer pentsatzen zuen nitaz...	177
<b>urri</b> eskasa, apurra	Osorik berreskuratu ziren gauza <b>urrietako</b> bat zela hura.	149
<b>ustezko</b> izan litekeena, presuntoa	Suposatzen zen zentro haietan arriskutsuak izan zitezkeen <b>ustezko</b> gaizkile atzerritarrak biltzen zirela, haiekin zer egin erabaki bitartean...	213
<b>uxatu</b> aldenarazi, urrundu, aienatu	Afrikarren aldia zen eta, ezinbestean, azken orduetan gogotik <b>uxatu</b> ezinda erabili nuen ardura etorri zitzaidan burura.	147
<b>xarma</b> lilura, enkantua	Sa kene-ren <b>xarma</b> nitaz jabetuta zegoen beste behin ere.	141
<b>xuxurlatu</b> ahapeka esan, isilean, murmurio	...nire ile kizkurra luzarazi zuten hitz batzuk <b>xuxurlatu</b> zizkidan belarrira.	47
<b>zahato</b> ardorako bota, larruzkoa	Ala bokata jatea atsedendian? Neuk eraman dezaket <b>zahatoa</b> .	205
<b>zakarkeria</b> gogorki, modu txarrean	...agerian dago batzuek <b>zakarkeriaz</b> hitz egiten diotela.	56
<b>zanpaturik</b> birrinduta	Ez nion azaldu prostituta gaztearen gorputza <b>zanpaturik</b> osorik berreskuratu ziren gauza urrietako bat zela hura eta autopsia egiteko ere larri ibili zirela.	149
<b>zintzilikario</b> zintzilik eramatekoa	Hitzez azaldu beharrean, berriz begiratu zion esku artean neukan <b>zintzilikarioari</b> ...	183
<b>ziringa</b> puñetera	Aurpegi serioari eutsi arren, agerian zegoen barrutik barreka ari zitzaidala puta <b>ziringa</b> hura.	135
<b>zizpuru</b> hasperena	...neskak <b>zizpuru</b> ozena egin, nigana hurbildu eta besarkada batez estutu ninduen.	222
<b>ziztrin</b> ezdeusa, baliogabea	...zerbait gehiago espero bainuen, inola ere ez bibote txikiko gizon <b>ziztrin</b> eta gixajo itxurako hura.	179
<b>zoli</b> ozena	...akustikak handitu zuen ahots <b>zoli</b> batez...	184
<b>zupaldi</b> zurrupada, felatioa	...idatzita egon arren, zera zioela: <b>Zupaldiak</b> 2 euroan.	10
<b>zupaldi</b> kalada, zupada	—Tira —beste <b>zupaldi</b> bat eman zion zigarroari— hori ez da arazoa.	154
<b>zurbil</b> zurixka, argia	Izan ere, azal <b>zurbila</b> eta begi oso handi eta argiak zeuzkan...	109
<b>zurrutada</b> tragoa, hurrupada	—Batek daki—bota zuen azken ardo <b>zurrutadarekin</b> batera.	171